

DENBORA NEURRIAK

1. Erlaziona itzazu kontzeptu hauek dagokien definizioarekin edo ezaugarriarekin.

Urtea	5 urteren aldi baliokidea.
Hilabetea	Urtea zatitzen den 28 eta 31 egun arteko hamabi denboraldietako bakoitza da.
Milurtekoa	Zehazki 365 egun eta 6 ordu inguru ditu.
Mendea	10 urteren aldi baliokidea.
Minutua	4 hilabeteko multzoa.
Bihilekoa	100 urteren aldi baliokidea.
Bosturtekoa	60 segundo.
Lauhilekoa	3 hilabeteko multzoa.
Hirurtekoa	7 eguneko multzoa.
Hamarkada	2 hilabeteko multzoa.
Hiruhilekoa	1.000 urteren aldi baliokidea.
Ordua	60 minutu eta 3.600 segundo.
Astea	3 urteren aldi baliokidea.

2. Esan ezazu baieztapen hauek egia (E) ala gezurra (G) diren. Gezurra badira, konpon itzazu.

☐ Urte batek zehazki 365 egun eta 6 ordu inguru ditu.

☐ Bosturteko bat 10 urteren aldi baliokidea da.

☐ Mende bat 100 urteren aldi baliokidea da.

☐ Lauhileko bat lau hilabeteko multzo bat da.

☐ Egun bat urtea zatitzen den 28 eta 31 egun arteko hamabi denboraldietako bakoitza da.

☐ Ordu bat 3.600 minutu eta 60 segundo dira.
